ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2018ko maiatzaren 23a, asteazkena • 59 zk.

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRAIA-MAEZTUKO UDALA

Hasierako onespena ematea Arraia-Maeztuko nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategiak sustatu eta garatzeko dirulaguntzak arautzen dituen ordenantzari

Arraia-Maeztuko Udalbatzak, 2018ko maiatzaren 10eko aparteko osoko bilkuran, hasierako onespena eman zion Arraia-Maeztuko nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategiak sustatu eta garatzeko dirulaguntzak arautzen dituen ordenantzari.

Bat etorriz apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 49. artikuluan xedatutakoarekin, hasiera batean onetsitako ordenantzaren testua web orrian argitaratzen da eta espedientea udal bulegoetan jartzen da ikusgai, interesdunek aukera izan dezaten aztertzeko eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko. Horretarako, hogeita hamar egun izango dituzte, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera.

Epe horretan, alegia, jendaurrean dagoen bitartean, iradokizunik edo erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko onarpen hori behin betiko bihurtuko da, udalbatzak berariazko beste erabakirik hartu beharrik gabe.

Maeztu, 2018ko maiatzaren 14a

Alkate-lehendakaria
ANARTZ GORROTXATEGI ELORRIAGA

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2018.05.23 05:30:34 Z